



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-10-05

VIII. URTEA 2.091. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Leitza, Lekunberri eta Iruztungo bizilagunek bizikleta zerbitzu publikoa dute. HITZA

«PLANETARI LAGUNTZEKO ONA DELAKO», BIZIKLETA

LEITZA Plazaolan Bizi ekimenaren baitan bizikleta zerbitzu publikoa eta 'Pedalkadak jasangarritasunerantz' erakusketari jarri dituzte 5

Besancek «tortura latzak» jaso izana salatu du

VILLABONA Ismael Moreno epaileak baldintzarik gabe Soto del Real espetxera bidali du 4

23. urtez Kultur Astea ospatuko dute asteburuan

TOLOSA San Esteban auzoan kultur ekitaldi ugari izango dira urriaren 9tik 17ra z

Bigarren eta bosgarren Trontza Txapelketan

HERRI KIROLAK Alkizako Roteta eta Rezabal aiarra azpitxapelkunak izan ziren 6

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Berrikuntzak eta betiko ekitaldiak San Esteban auzoko Kultur Astean

Tolosa » Larunbat honetan hasi eta hilaren 17ra arte luzatuko da; adin guztiei zuzenduriko hamaika ekitaldi antolatu dituzte.

INIGO TERRADILLOS

Datorren asteburua luzea izango da askorentzat Pilarika egunarekin bat egiten duelako, eta horregatik, asteburu pasa egiteko baliatuko dute hainbatek. Tolosan bertan geratzen direnentzat, baina, izango da zertaz gozatua, bai Bera-zubi bai eta San Esteban auzoetan hamaika ekitaldi izango baitira, festak eta Kultur Astea ospatzen dituztelako, hurrenez hurren.

San Esteban auzoan 23. urtez egingo dute Kultur Astea, eta beti bezala, adin guztiei zuzenduriko askotariko ekitaldiak prestatu dituzte. Lehenengo egunean, esaterako, Leitzarnera joango dira auzotarrak txirrinuz, bertan ibilaldia egiteko; «urtero egin izan dugu ibilaldia auzoan zehar, eta aurten auzotik irteera erabaki dugu pixka bat aldatzeko», azaltzen dute antolatzaileek. Asteartean, Kultur Astearen barruan egonkorturik da goen herri krosa egingo dute.



Auzotar ugari bilduko dira aurten ere Patata Tortila Lehiaketan. I.T.

Lehen bi egunetan kirol jarduerak izango dira, beraz, eta hirugarrenean hitzaldi bat izango dute auzoaren etorkizunaren inguruan: «Hainbat auzotar banan bana joan dira udaletxera auzoaren etorkizunaz galdetuz, eta horregatik, bertako ordezkariak etorriko dira auzotar guztiei informazioa ematera».

Ostegunean urtero urtero ere hutsik egiten ez duen Patata Tortila Lehiaketa izango da, auzotar

ugariren parte-hartzearekin, eta gauean Detritus Teatrusen antzezlan izango da ikusgai. Lorpenak izan arren bakarrik sentitzen den 33 urteko emakume independente baten bizitza irudikatuko du.

Bigarren asteburua, betea

Ostiralean musika izango da protagonista, eta batez ere, afrikar doinuak; «Kora instrumentua joko du lehendabizi. Enekora izeneko mu-

sikariak, eta ondoren, Africa Bay Yay senegaldarrez osaturiko taldearen txanda izango da. Horien ostean, DJ Bullek jarriko dio azken ukitua gauari», diote antolatzaileek.

Larunbat arratsaldean denetarik izango da, batez ere, gaztetxoek zuzenduriko ekitaldiekin. Horien artean, iaz lehen aldiz egin zuten eta aurten ere errepikatu nahi izan duten zaldi gurdiairekin paseoa egingo dute; «Asier Lopetegi etorriko da behorrekina eta gurdiairekin eta nahi duten auzotarrek ibilalditxo egin ahalko dute». Gauean, berriro ere kontzertuen txanda izango da, eta kasu honetan, 70. eta 80. hamarkadetako rock eta heavy doinuak izango dira entzungai.

Azken egunean ere ohiko ekitaldiek izango dute lekua, horien artean auzoko babarrun jatea nabarmendu daitekeelarik. 100 lagun inguru izango dira aurten ere. Kultur Astea behar bezala amaitzeko dantzaldia iragarri dute azken gauerako, Koxkorrena orkestrarekin.

San Estebango Kultur Astearen antolatzaileek herritar guztiak animatu nahi dituzte egunotan auzora gerturatzera eta guztien artean giro polita sortzera.

» EGITARAUA

Urriak 9, larunbata

■ **09:30.** Leitzarango jaitsiera txirrinuz haur eta helduentzat.

Urriak 12, asteartea

■ **11:00.** Tolosako XXII. Herri Krossa.

Urriak 13, asteazkena

■ **19:30.** Hitzaldi informatiboa auzoaren etorkizunari buruz, pintxo makrobiotikoen dastaketaz lagunduta (Artatzkonea makrobiotika etxea).

Urriak 14, osteguna

■ **19:00.** VIII. Patata Tortila Lehiaketa. Ondoren, luncha.
■ **22:30.** *Las punkis también lloran* antzezlan Detritus Teatrusen eskutik.

Urriak 15, ostirala

■ **23:00.** Kontzertua: Enekora (Kora arpa afrikarraren kontzertu akustikoa) eta Afrika Baj YAY (Afrikar perkusioa).
■ **Ondoren.** DJ Bull.

Urriak 16, larunbata

■ **16:00.** Altxorraren bila.
■ **16:00.** Mus txapelketa.
■ **16:30.** Haur jolasak.
■ **16:30.** Zaldi gurdian paseoa auzotik.
■ **16:30.** Graffiti erakustaldia.
■ **18:00.** Buruhandiak.
■ **19:00.** Txokolate jatea, Bonbereña txarangak alaituta.
■ **00:00.** La banda del jefe Bigun (70 eta 80. hamarkadetako rock eta heavy taldeen bertsoak) taldearen kontzertua.

■ **Ondoren.** DJ Puntzakarekin festaren jarraipena.

Urriak 17, igandea

■ **09:00.** Diana herriko txistulariekin.
■ **10:00.** Trikitixa auzoko baserrietan.

■ **11:00.** Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.

■ **12:00.** Toka txapelketa gizonen-koentzat eta emakumezkoentzat auzoko txarangak alaituta.
■ **14:00.** Auzoko babarrun jatea.
■ **Ondoren.** Dantzaldia Koxkorrena orkestrarekin.



23. urtez egingo dute herri krosa. E. EZEIZA

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Autokarabana.** 6 pertsonentzako autokarabana alokairuan hartuko genuke Eguberrietatik Errege Egunaren arteko egunetan. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 647 97 88 45.
■ **Baserría edo borda.** Baserri edo borda bat hartuko genuke alokai-

ruan. Interesatuak deitu 634 45 91 10 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Bidegoian, Goiatz.** Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. Estreintatze, material oso onak. Portxe, terraza eta jardinarekin. Aukera ezin hobea! 943 30 40 38.

L Laburrak

Musturiazpi eta Floreaga karobiak garbitzera

VILLABONA » Burdina taldea boluntario bila dabil Musturiazpi eta Floreaga karobiak garbitzeko. Beraiek diotenez, ondare historikoa berreskuratzen lagunduko nahi duen orok har dezake parte auzolandegian. Horretarako, 699 48 76 83 telefono zenbakira deitu besterik ez da egin behar. Urriaren 9an irtengo dira garbiketarako egitera.

Irakurle Taldearen bilera, etzi, Kultur Etxean

TOLOSA » Galtzaundi Euskara Taldeko Irakurle Taldea Mikel Antzaren *Ospitalekoak* liburuz ariko da etzi. Kultur Etxeko lehenengo pisan izango da, 19:30ean.

Pirinioetara mendi irteera Oargi mendi elkartearekin

TOLOSA » Gourgs Blancs eta Grand Quayrat-era (Pirinioak) mendi irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak urriaren 15etik 17ra. Izen-ematea elkartearen, 943 67 56 12 edo 688 698642 zenbakietan edota www.oargi.org webgunean.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarano autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko aukera zabalik

Tolosa » Bi dira baldintzak: euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea eta astean ordubete eskaini ahal izatea.

arte luzatuko da. Galtzaundi euskara taldeko arduradunek argitu dutenez izena emateko bi ezaugarri baino ez dira bete behar: «euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila edukitzea eta astean ordubete eskaini ahal izatea».

ERREDAKZIOA

Galtzaundi euskara taldeak koordinatuta, Mintzalaguna egitasmoa egingo da Tolosan azaroa eta ekain artean.

Horrenbestez, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ohitura ez dutenak azaroa eta ekaina artean astero, gutxienez ordubetez, elkartuko dira euskaraz hitz egiteko.

Egitasmoan izena emateko aukera ireki dute jada eta urriak 22

Lau pertsonetako taldeak

Ordutegia edota bakoitzaren zaleztasunak kontuan hartuta, euskaraz aritzeko ohitura ez duten bi edo hiru pertsona eta euskaraz hitz egiteko ohitura duen herritar batek osatutako taldeak egingo dira.

Era berean, talde bakoitzak erabakiko du noiz eta zertarako gelditu; kafea hartzeko, haurrekin parkean egiteko, erosketak egiteko



Villabona eta Zizurkilgo euskara zerbitzuek ere antolatu izan dute Mintzalaguna egitasmoa. HITZA

edo kirola egiteko... Mintzalaguna egitasmoa kide guztiak helburu bera dute: «elkarrekin diren denboran euskaraz hitz egitea».

Izan ere, Mintzalaguna egitasmoan izena emateko arrazoiak asko izan daitezkeela diote egitasmoaren arduradunek, «giro euskaldunak ezagutzeko nahia, euskara maila hobetzeko desioa, erdi ahaztuta izan eta berreskuratzeko

beharra, lagunartean gazteleraz aritzeko joera aldatu nahi izatea, euskara praktikatzeara...».

Bestelako ekimenak

Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen duten guztiak elkar ezagutzeko eta euskaraz jardunez ondo pasatzeko nahiarekin bestelako ekimenak ere antolatu asmo ditu

Galtzaundik, hala nola, afariak, kultura emanaldietara irteerak...

Mintzalaguna egitasmoaren inguruko informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko, 943 655 004 telefono zenbakira deitu, koordinatzailea@galtzaundi.com helbide elektronikora idatzi edo Galtzaundiren egoitzara joan behar da (Nafarroa etorbidea, 6-behea).



Urbiongo tontorra. HITZA

Urbiongo tontorretara joango dira Aizkardikoak

Villabona » Urriaren 23 eta 24an joango dira; 24an joango dira; larunbatean irtengo dira 06:00etan Olaederra kiroldegitik.

del Pinar, Rio Lobos arroila eta Ucero aldera joko dute.

Igandean, aldiz, Urbion tontorra igoko dute Laguna Negra zeharkatuz.

Irteeran izena emateko 6497171 82 telefono zenbakira deitu behar da ostegunetik urriaren 21 bitarte 20:00etatik 22:00etara. Aizkardi mendi taldearen egoitzara ere jo daitezke ostegunetan 21:00etatik 22:00etara (Larrea Auzoa, 18 B).

Irteera larunbatean izango da, urriak 23, 06:00etan Villabonako Olaederra kiroldegitik.

ERREDAKZIOA

Villabonako Aizkardi menditalko kideek irteera antolatu dute urriaren 23 eta 24eko astebururako. Urbinako tontorretara joango dira.

Larunbatean, hilak 23, Hontoria

Irudikatu mundua **BERRIA**rekin

Gozatu berria

Egin harpidedun eta jaso **ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berresoluzio ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, 8x argazkiak handitzeko
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat **BERRIA**ren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, eta D-Link irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI harpide bat, PC-ko sarriera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiak lotzeko.

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.

www.elektragalluak.com

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info aukerazazu **BIZI**euskaraz **berria**

Epaileak kartzelara bidali du Besance eta «tortura latzak» jaso izana salatu du

Villabona » Abokatuekin egoteko bost minutu izan ditu eta Soto del Real espetxean sartu dute Atristainekin batera.

ERREDAKZIOA

Guardia Zibilaren eskuetan bost egun inkomunikatuta pasa ostean, Juan Carlos Besance billabonatarra eta Xabier Atristain atzo pasa ziren epailearen aurretik. Irailaren 29an atxilotu zituzten Usurbilen eta Villabonan. Beraiekin batera, Jesus Mari Besance ere atxilotu zuten, baina pasa den larunbatean libre utzi zuten Madrilan, epailearen aurretik pasatu gabe. Ongi etorria egunean bertan egin zioten.

Ismael Moreno Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak baldintzarik gabe espetxera bidali ditu Xabier Atristain eta Juan Carlos Besance, ETArekin harremana dutelakoan. Lehergaiak eta armak izatea egotzi die. Autoak, bi atxilotuak 2008. urtean Venezuelara joan zirela armak erabiltzen jakiteko ikastaroak hartzea adierazten



Asteazkenean atxilotu zituzten Villabonan Juan Carlos eta Jesus Mari Besance. HITZA

du. Horretaz gain, epailearen arabera, Ibai Beobide ustezko atakideari informazioa ematen zioten.

Besance eta Atristain, Soto del Realgo espetxean sartu dituzte preso. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazi duenez, bi

atxilotuek inkomunikatuta egon diren bost egunetan igaro dutena «oso gogorra» izan da eta «tortura latzak» jasan dituzte.

Abokatuekin soilik bost minutuz egoteko aukera izan zuten atzokoan.

Rubalcabaren esanak

Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Gobernuako Barne ministroak atzo esan zuenez, Besancek, Jose Javier Mugika Leitzakotuz UPNko zinegotziaren hilketan parte hartu zuela, 2001eko uztaile-

an. Hark dioenez, 2000. urtean Jose Ramon Rekalde PSE-EEko kide eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Hezkuntza sailburu ohia- ren aurkako atentatu saioan ere hartu zuen parte. Navian (Asturias, Espainia) mintzatu zen Rubalcaba, epaileak bi atxilotuekin zela. Bertan, Guardia Zibilaren kuartel berria inauguratu zuen.

Ikerketak iturriek diote ETAren Donostia taldea berriro osatu nahian zebiltzala eta 101 kilo lehergai atzeman zizkietela Villabonan, baita 2001ean lapurtutako autoa ere -Renault 19 markakoa-. Guardia Zibilak ostiralean jakinarazi zuen Donostiako lokal batean lehergaiak eta armak aurkitu zituela, Puio auzoko lokal batean, eta pistola bat aurkitu zuela Atristainen etxean.

Ostiralean manifestazioa

Urriaren 8an, ostiralean, «errepre-soari stop» esateko, manifestazioa deitu dute Villabonan.

Tolosaldeko herritarrei, dei egiten diete Villabonako kaleak jendez betetzeko.

Manifestazioa 20:00etan abiatuko da herriko plazatik eta Villabonako kaleak zeharkatuko dituzte. Bertan, torturaren aurka dueda adieraziko dute eta baita, Juan Carlos Besance herriidea askatzeko ere.

Ugarteko jaietan «giro ezin hobea» izan da

Ugarte » Aspaldiko urteetan izan den jende kopururik handiena izan da. Tradizio handia duen Ingurutxuak etorkizuna ziurtatua du.

ERREDAKZIOA

Uda amaiteza, herri eta auzoetako festak amaierara iristen ari direnaren seinale izan ohi da. Eta eskualdean ere, azken txanpara iristen ari dira. Igandean amaitu ziren Ugarteko jaiak.

Urte sasoi honetan, eguraldiak zeresan handia izaten du. Aurtun Ugarten, eguraldiaren aldetik ez dute kexatzeko aitzakiarik izan. Giro ezin hobea izan dute, haize epela eta guzti.

Azken urteetako jenderik gehiena izan da

Hiru egun izan dituzte festarako eta antolatzaileak «oso gustura» agertu dira eta «guztia oso ondo» ateratzea adierazi dute.

Ostiraleko afari herrikoian, 111 lagun elkartu ziren. Bertara, Ugarterekin lotura dutenak gerturazten dira.

Larunbatean, aspaldiko urteetan izan den jenderik gehiena elkartu zen. Zahagiardoa izan zuten eta 300 bat lagun elkartu zirela kalkulatu zuten. Aurtengo bitxikeria, afaostean, txerri harrapatzea izan zen. Gainera, erromeria giro bikaina izan dela azpimarratu dute «jende askok egin du dantza trikitilariekin».

Ingurutxoa ere dantzatzeko dute eta etorkizuna ziurtatua du. Tradizio handiko dantza da hau eta aurtun hamar bikotek dantzatu zuten, bost bikote helduez osatuak izan ziren eta beste bostak, gazteek.



Igandean, txakolin dastaketa ere izan zuten eta jende ugari elkartu zen. Baita herri kirol saioan ere. Egun guztian zehar, Laja eta Landakanda trikitilariak izan ziren giroa alaitzen. Lajak, ia mende erdia bete du Ugarteko jaietara jotan. Urtero-urtero joan ez bada ere, askotan izan da bertan eta lehen aldiz, duela 47 urte izan zen trikitia hartuta.

Bi txerriren zozketa

Urtero bezala, Amezketako Akelok Guraso Elkarteak, zozketa egin zuen. Aurtun bi txerri zozketatu dituzte eta hauek izan dira zortedun zenbakia: 195 eta 547. Zenbakia duenak Guraso Elkartearekin jarri beharko du harremanetan.



Igandean herri kirol saioa izan zen. SARA GOMEZ

G Gutunak

San Bartolome jaiak eta korporazioaren gezurrak

Festak direla eta Udalaren komunikatu andana irakurri ondoren, Udal honen gezurrak ezin dira gehiago ezkutatu:

Lehendabiziko gezurra: komunikabideetara bidalitako lehen gutun batean, alkateak eta baita kultur arloko zinegotzia den Itziar Jauregik ere, Jai Batzordeak Udalarri egindako plantoaren aurrean, inor kontratatzeke beharrik ez zutela esaten ziguten, beraiek bakarrik egin omen zezaketek guztia (hori bai, ez ziguten esan zeintzuk ziren festa batzordeak planto egitearen arrazoiak). Baina errealitatea beste bat izan da: festetarako kontratazioa J.A. Larrañaga y otros C.B.ri, kontzertutako sonori-

ziaziorako; kontratazioa J.A. Larrañaga y otros C.B.ri, festa ezberdinetarako; kontratazioa J.A. Larrañaga y otros C.B.ri... eta guzti hau festetako kontratazioaren %60 izan da. Emaizta herritar guztiok ikusi dugu: Udaleko festetan ikusle gisa soilik parte hartu dugu, besterik ez.

Bigarren gezurra: San Bartolomeetako ekintza guztietara jende asko hurbildu dela esaten diguzue. Ez gara eztabaida antzuetan eroriko, baina, zein parte-hartze bultzatu duzue? Zenbat Ibartarrek hartu dute festetan aktiboki parte? Ikusle hutsak izatea al da zuzentzat, festetan herritarrok izan behar dugun presentzia? Programa, edukiz hutsa egon da. Jende askok egin du lana Ibarako festak parte hartzaileak izan zitezten, eta zuek, mugak

hautsi dituzue, parte hartzerik ia baterik ez.

Hirugarren gezurra: Festa alternatiboak 6.000 euroko laguntzarekin babestu dituzuela esan duzue, antza, txosnak (eta ez Bartolal) okupatu duten lurra kobratu ez diezuelako. Hau ez da ez subentzio bat, ezta kolaborazio ere. Erabaki hau hartzearen arrazoia, txosnei, hau da, arlo ezberdinetan (euskaraz, kultura...) lan egiten duten taldeei hainbesteko dirutza kobratzeko lotsa sentitu izana espero dugu. Hori izan baita zuen arazoa, kultur arloko eragile gehienak bizkar eman dizuetela halako araudia onartzean. Geroz eta gehiago dira, arrazoi batengatik edo besteagatik bizkarra eman dizueten eragileak.

Festak aurrera ateratzeko enpresa bat kontratatu behar izatea,

lotsagarria da ibartar guztiontzat. Are gutxiago uler dezakegu erabaki hau, herritarrok gure zergekin, kultur teknikari bat ordaintzen ari garenean.

Komunikabideei dagokienean, gure haserre adierazi nahi dugu 28 Kanalaren jarreeratik. Bere profesionaltasun eza lotsagarria izan da, festetako benetako errealitate, hau da, Udaleko festa eta Bartolaren Jai Alternatiboaren existentzia ezkutatzean. Galdera bat dator kigu burura: hau al da ibartarrok nahi dugun komunikabidea? Herritarrok zergak horrelako komunikabide batekin erabili nahi al ditugu? Jasotzen duzuen dirua publikoa izanik, errespetua merezi dugu.

Aitor Izagirre. Ibarako hautetsi independentista.

Ostiralean hasiko da Berastegiko Argazki Rally herrikoia

ERREDAKZIOA

Beste behin ere, Berastegiko Kultura Batzordekoek Argazki Rally Herrikoia antolatu dute. Oraingo honetan, hilaren 8tik 12ra bitartean jokatu da txapelketa. Parte-hartzaileek ostiralean, 20:00etan agertu beharko dute plazara eta asteburu guztia izango dute herriko irudirik ikusgarrienak biltzeko.

Parte hartzaileek bost egun izango dituzte beraien argazkiak ateratzeko. Iaz bezala, bi txapelketa egingo dira, bata argazki kamera analogikoekin eta bestea kamera digitaletan.

Ingurumena» Plazaolan Bizi ekimenaren baitan, erakusketa ibiltaria ikusgai da aste guztian zehar udaletxeko batzar aretoan.

ERREDAKZIOA

«Geure buruari, bizi garen lekuari eta planetari laguntzeko bizikleta onuragarria delako», leitzarrak sentsibilizatu nahi dituzte Plazaolako Partzuergokoek eta Udal ordezkariak. Horretarako, *Pedalkadak jasangarritasunerantz* erakusketa ibiltari bat ekarri dute udaletxeko pleno aretora. Hau igandera arte dago ikusgai, astez, 09:00etatik 20:00etara bitartean, eta asteburuan, 10:00etatik 14:00etara.

Erakusketan mugikortasunari dagozkion inguruko hainbat datu plazaratzen dira. Hala nola, «egunean egiten ditugun joan-etorri gehienak bizikletaz egin daitezkeela, hots modu ekologiko eta eraginkorrean». Izan ere, 150 eta 250 gramo CO2 bitarte gutxiago igortzen da atmosferara autoz egiten ez den kilometro bakoitzeko. Gainera, bizikletaz joanez gero, batzuek, orduko 15 eta 18 kilometro bitarte egin daitezke hirian.

Bizikleta garraibide bezala erabiltzeak hasiera batean, onurak besterik ez ditu, sedentarisismoa gusi den gizarte honetan, bizikleta erabiltzearekin, geure buruari, bizi garen lekuari eta planetari egiten baitiogu mesede. Honez gain, ona da zangoetarako, bihotzerako, osasunerako eta arnasten dugun airerako.

Bizikletaren erabilera zabaltzeko ideiak

Leitzako udaletxeko batzar aretoan aurkitu daitezkeen paneletan, bizikletaren erabilera zabaldu eta orokortzen laguntzeko zenbait ideia proposatzen dira.

Jasangarritasunera daramaten «pedalkadak» Leitzara iritsi dira



Plazaolan bizi egitasmoari hasiera emateko, tailerra egin zuten joan den asteburuan. HITZA

Alde batetik, autoa ez erabiltzea posible den joan-etorrietan, bizikleta garraibide alternatibo bezala hartzea gomendatzen da, baita familia eta lagunaren artean paseo eta txango laburrak honekin egitea ere. Bestetik, garrantzitsutzat jotzen dute tximindulariekiko errespetua, bai hiri bideetan, baita errepideetan ere. Hauek ahulak baitira daramaten abiaduragatik. Bakotza bere udalerrian bizikletan ibili ahal izateko ekipamenduak (bidegorriak, bizikletetarako aparkalekuak, alokairu zerbitzuak...) jarztearen alde agertzeko ohartarazten dute. Azkenik, joan-etorrietan, nahiz aisialdian, senideei eta ingurukoei bizikletan ibil daitezela bultzatzeko proposatzen dute.

Atzotik martxan da Plazaolan Bizi ekimena

Lekunberri, Leiza eta Irurtzungo bizilagunei zuzendutako bizikleten zerbitzu publiko atzo jarri zen martxan. Zerbitzua Plazaola Par-



Bizikleta ezberdinak eta panel informatiboak ikusi daitezke erakusketan. E.E.

tzuego Turistikoak hiru herrietara udaletxeen laguntzaz kudeatutako bizikleten alokairu sistema publikoan datza. Horretarako, 30 bizikleta jarri dituzte, jendeak erabili ditzan.

Zerbitzuaren erabiltzaile izango diren bizilagunen artean ezagutzera emateko, Plazaolako Partzuergo Turistikoak tailer batzuk antolatu zituen joan den asteburuan.

Lehenengoa, ostiralean izan zen, Leitzako herriko plazan. Horretara 100 pertsona baino gehiago gerturatu ziren Oraintxe enpresak emandako Bide Hezkuntza tailer batean parte hartzera. Proiektzio bat ikusi eta hitzaldi bat entzun ondoren, bertaratu ziren guztiak euren bizikletetara igo eta herritik paseo bat eman zuten, bide hezkuntzako tailerlean ikasitako guztia praktikan jarritz. Beranduago, plazara itzultzean, freskagarri batzuk eta txistorra hartzeko aukera izan zuten.

Alokairua

Bizikletak bi erabiltzaile motei zuzenduta daude: harpidedunei eta noiz behinkako erabiltzaileei. Harpidetzeko, hots, bizikletak urte osoan zehar maiztasunez erabili ahal izateko, 30 euro ordaindu beharko dira; noizean behin bizikletak erabiltzeko, berriz, bere nortasuna baieztatzen duen dokumenturen bat aurkezteaz gainera 0,5 euro ordaindu beharko dira lehenengo orduan, eta euro 1 hurrengoetan (4 orduz gehienez). Bi kasuetan egin beharreko kudeaketak Leitzako eta Lekunberriko kiroldegietan eta Irurtzungo Plazaola kafetegian kokatuta dauden hiru oinarrietan egin daitezke.

E Emaizak

PILOTA

4 LAU T^{ER}DIKO NITRO TXAPELKETA	
FINALERDIAK	
Bengoetxea VI	22
Patxi Ruiz	20
Barriola	22
Irujo	21

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

LAUGARREN JARDUNALDIA	
Tolosa CF	2
Berio	1

ERREGIONAL PREFERENTEA

LAUGARREN JARDUNALDIA	
Antzuola	2
Tolosa CF 'B'	1
Getariako	3
Intxurre	2

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

HIRUGARREN JARDUNALDIA	
Lauburu KE	4
Atenea Ikusnet FS	4

NAZIONAL B MAILA

BIGARREN JARDUNALDIA	
Transportes Lakunza	0
Donostia Zuz./Naturgas Energ.	5
Ceramicas Nogales Zarautz	3
Laskorain Ikastola	2

SASKIBALOAIA

1. MAILA NAZIONALA

LEHENENGO JARDUNALDIA	
Bidebide Ibiza	61
Centro de Estudios Mikeldi	54

TRONTZA

EUSKADIKO TXAPELKETAREN FINALA	
1- I. Barberena- J. Barberena	10:32
2- A. Rezabal- Aitor Roteta	13:29
5- U. Iraola- J. Garmendia	16:10

MENDIKO LASTERKETA

EUSKADIKO KOPAREN SAILKAPEN	
OROKORRA	
(BETERANOAK GINOEZKOAK)	
1- Luis Ezeizabarrena (Tolosa)	387
2- Javier Llaguno	375
(EMAKUMEZKOAK)	
1- Elena Calvillo	387
2- Nerea Amilibia (Zizurkil)	386

Irabaziz hasi du Bidebide Ibizak denboraldia

Tolosa » Etxean irabazi zioten, lehenengo jardunaldian, Centro de Estudios Mikeldi taldeari 61-54 emaitzarekin.

ERREDAKZIOA

Bidebide Ibiza saskibaloit taldeak asteburu honetan hasi du denboraldia eta lehenengo garaipena lortu du. Etxean jokatu zuen Xentro de Estudios Mikeldi taldearen aurka eta 61-54 irabazi zion. Lehenengo hiru puntuak lortu ditu eta sailkapenean hirugarren aurkitzen da. Hurrengo norgehiagoka Lizuan.com ISB taldearen aurka jokatuko du, kanpoan, hilaren 9an



Take-k eskola jarri du martxan Usabal kiroldegian. HITZA

eta 19:00etan. Bestalde, Take Or-bela Tabernak 48-44 irabazi zion Carnicas San Marcial Erroibideri.

TAKE eskola martxan da

Aurreko ostiralean ekin zioten TAKE eskola berriari. 1999, 2000,

2001 eta 2002 urteetan jaiotakoak elkartu ziren bertan, guztira 50 gaztetxo. Saskibaloian lehen pausok emateko aukera izan zuten TAKE-ko entrenatzaile formatuen eskutik.

Bi kantxatan banatu eta ariketa eta jolas desberdinak egin zituzten saskibaloia mundura gerturatzeko, «giro ezin hobean», azaldu dute saskibaloitaldetik. «Emaizta baikorra izan da eta irribarretsu iriten dira gazteak kantxatik». Hemendik aurrera ostiraleko elkartuko dira Tolosako Usabal kiroldegian, 17:30ean. Eskola horrek aukera ezin hobea ematen du TAKE-ko harrobia indartzeko, apurka- apurka klub sendo bat bilakatzen joateko.

Eskualdekoak bigarren eta bosgarren Trontza Txapelketan

Herri kirolak » Roteta alkizarra azpitxapelduna izan zen; ikaztegieta Iraola eta Baliarraingo Garmendia, bosgarren.

ERREDAKZIOA

Euskadiko Trontza Txapelketako finala jokatu zen larunbatean Igantzain (Nafarroa Garaia) eta bertan eskualdeko hiru ordezkarik parte hartu zuten. Andoni Rezabal aiarrarekin batera lehiatu zen Aitor Roteta alkizarra eta bigarren postua lortu zuten. Unai Iraola ikaztegieta eta Jokin Garmendia baliarraingorak osatutako bikotea, berriz, bosgarrena izan zen.

Iñaki Barberena eta Josetxo Barberena anai nafarrek lortu zuten txapela, 10:32ko denbora egin ez. Rezabal-Roteta bikoteak 13:29ko denbora egin zuten, txapela eskuratzeko aukera gutxiarekin. Iraola-Garmendiak 16:10eko denbora egin zuten.



Unai Iraola eta Jokin Garmendia (urrutiago ikusten den bikotea) trontzan aritu ziren aurtengo Aldabako jaietan. HITZA

H Hilberria

INMA ARAMENDI SUDUPE

Igandean hil zen, 50 urte zituela

Elkarrekin pasatako une alaiak ez ditugu inoiz ahaztuko



Zure senarraren lagunak: Valentin eta Consuelo, Joxean eta Enkarni, Faustina eta M^a Karmen eta Jabier eta Olatz

AZKOITIA
2010eko urriaren 5a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Barriola eta Bengoetxea VI.a elkarren aurka ariko dira Nitro Txapelketako finalean

Leitza » Barriolak Irujori eta Bengoetxeak Ruizi irabazi zioten, hurrenez hurren, Zallako frontoian jokatutako finalerdietan.

ERREDAKZIOA

Leitzarren arteko finala izango da Lau t'erdiko Nitro Txapelketa. Zallako (Bizkaia) frontoi urdinean jokatutako finalerdietan Barriolak 22-21 irabazi zion Irujori eta Bengoetxea VI.ak 22-20 Patxi Ruizi. Aste honetan aurkeztuko den Lau t'erdiko Txapelketara pilotariak nola iritsiko diren ikusteko balio izaten ari da Nitro Txapelketa. Hala, Barriolak bere lesioa atzean utzi duela erakusten ari da.

Partida gogorra jokatutako Barriolak Irujoren aurka. Guztira 52 minutu eta 298 pilotakada. Lau t'erdiko bi txapeldun ohiek gaizki ekin zioten partidari, huts asko egin zituzten hasiera tantoetan. Pixkanaka jokoa eta ikuskizuna hobetzen joan zen. Tanto alderik handiena Irujok lortu zuen (18-14), eta partida irabazteko bidea hartu zuela zirudien. Leitzarra ez zen ikusle bezala joan eta partida irabaztera joan zen. Lau tanto eginez jarraian berdinketa iritsi zen (18-18).

Irujori aurreko gauean Zeaurin jokatutako partidaren nekeak etorri zitzaizkion norgehiagokaren azken txanpan. Arriskatu behar zuen eta 21 tantoetara iritsi zen, Barriola 19ra zegoela. Halere, leitzarrek hiru tanto segidan egin



Barriolak Irujo mendean hartu zuen Nitro Torneoan. HITZA

zituen eta garaipena eskuratu azkenekoan horma biko dotorea eginenez. Guztira Barriolak sakez zazpi tanto egin zituzkion Iberokoari.

Beste partida borrokatua

Oinatz Bengoetxea faborito bezala ateratu zen beste finalerdian Patxi Ruizen aurka, bainalanak izan zituzten leitzarrek Lizarrakoari irabazteko. Ruizek erakutsi du jokoa ez duela galdu eta defentsan oso ondo aritu zen. Lan handia egin behar izan zuen Bengoetxeak garaipena lortzeko. Guztira 312 pilotakada jo zituzten.

Partidaren lehen zatian joko ho-

beagoa ikusi ahal izan zen, baina bukaeran huts gehago egin zituzten pilotariak. Azkenean indartsuena zegoenak irabazi zuen. Ruizek eskura izan zuen garaipena (19-17), baina Bengoetxeak buelta eman zion markagailuari eta finalerako txartela lortu zuen.

Bi leitzarrek oso partida interesgarria jokatuko dute datorren larunbatean 17:30etan hasiko den jaialdiaren baitan, Zallako Mime-tiz frontoian. Lehenengo partida Urrutikoetxea-Zabala eta Idoate-Beroiz bikoteen artekoa izango da eta gero Barriola eta Bengoetxeak izango dute jokoa txapela.

3-2 galdu zuen Laskorainek Zarauzko derbia

Tolosa » Partidako lehen jokaldietan tolosarrek arriskua sortu bazuten ere, ondoren zarauztarrek hartu zieten aurrea.

ERREDAKZIOA

Elkar ondo baino hobeto ezagutzen duten bi talde izan ziren pasa den larunbatean Zarauzko kiroldegian.

Nazional B mailako derbietan klasikoenetakoa bihurtu dena jokatutako Ceramics Nogales eta Laskorain taldeek. Zonakako defentsa eta eraso alai erabiltzen dituzten bi talde, hain zuzen.

Partidako lehen jokaldietan Laskorainek arriskua sortu bazuten ere, zarauztarrek sartu zuten lehen gola. Defentsa horitxoak koparean egindako hutsegite bat baliatu zuten horretarako.

Gola jaso arren, Javik zuzendutako mutilek baloia jabetza hartu eta jokaldi politik eginen makina bat aukera sortu zituzten. Aukera denak ezin gelditu eta Beñaten geldialdi baten aurrean, amore eman behar izan zuen lan bikaina egiten ari zen atezain zarauztarrek.

Zailena eginda zirudien ordea, luze jokatutako baloi batera egindako irteera xebearen ondoren, atezain horitxoak kale egin eta zarauztarrek berriro aurreratu ziren.

Gol honekin, norgehiagoka aitzineko gidoira bueltatu zen, baina

oraingoa etxekoek egin zuten euren hirugarren gola kontraeraso bat ederki amaituz.

Bigarren zatian lasaitasuna nagusi

Bigarren zatian hasiera lasaitasunez hartu zuen Laskorainek, aurkariaren gol batek partida amaitutzat utziko zuenaren jakitun.

Denborak aurrera egin zuen ordea eta markagailua bere horretan zegoenez pixkanaka euren lerroak aurreratu joan ziren tolosarrek. Aldaketa honek izan zuen saririk eta Gil nekagaitzak markagailua murriztea lortu zuen.

Handik aurrera ordea, Laskorain taldeak etxekoak estu hartu bazituen ere, zarauztarrek euren atea salbu mantentzea lortu zuten eta markagailua ez zen mugitu ere egin.

Defentsako hutsegiteak

Lehen jardunaldiko jokoa hobetu zen arren, defentsako hutsegiteak esku hutsik bueltatzera behartu zituzten Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Endika, Beñat, Murgi, Gil, Barrila, Joniko, Txiki, Saldias, Ekhi, Illunbe eta Aratz jokalariek gazteak.

Harrobiari dagokionez, aldiz, Aitorrek gidatutako taldeak garaiaren garrantzitsua lortu zuen Idiazabalgo taldearen aurka 6-3 eta Ikerren mutilek berriz, amore eman behar izan zuten Allerruren aurrean 2-8.

Luis Ezeizabarrena, Euskadiko Kopako txapeldun beteranoetan

Mendi Lasterketa

Tolosarrak 387 puntu lortu ditu; Nerea Amilibia zizurkildarra bigarren izan da emakumezkoetan.

ERREDAKZIOA

Luis Ezeizabarrena tolosarrak Mendi Lasterketen Euskadiko Kopa eskuratu du beteroan mailan. 387 puntu lortu ditu eta bigarren sailkatuari, Javier Llagunori, 12 puntuko alde ateratu dio.

Bere aldetik, Nerea Amilibia zizurkildarrak bigarren postua lortu du emakumezkoen mailan. 386 puntu eskuratu zituen eta txapeldunetik, Elena Calvillotik, puntu bakarreragelditu da.



Luis Ezeizabarrena, podioaren erdian. ANTXON BURCIO

Mendi Lasterketako Euskadiko Kopan guztira lau proba zeuden: Aramotz, Orozko, Zumaia eta Olazti. Korrikalariek gutxienez hiru probatan parte hartu beharra

zuten azken sailkapenean kontuan izateko. Ezeizabarrenak proba guztietan parte hartu zuen eta Amilibiak Aramotzeko ez beste hiruetan.

DVDa: 15€
Liburua: 25€
Liburua + DVDa: 30€

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:
943-30 43 45
harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek irteera antolatu du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko abiadura zirkuitua bisitatuz. Izen-ematea, elkartean.
- **Tolosa.** Ostiral honetan, urriaren 8an, Golden Apple Quartet taldearen Los Golden en blanco y negro emanaldia izango da ikusgai, Leidor aretoan, 20:30ean. Sarrerak 15 euroren truke daude salgai Leidorreko leihatilan eta Kutxako ohiko kanaletan.
- **Villabona.** Urriaren 30etik azaroaren 13ra bitarte, Benidormera bidaia antolatu du Biltoki jubilatutako elkartek. Izen-ematea Txerminingo egoitzan egin ahalko da asteartetik ostiralera, 11:00etatik 12:30era.
- **Tolosa.** Jada erosi daitezke Nazioarteko Abesbatza Lehiaketarako bonuak. Lehiaketa urriaren 29tik azaroaren 1a bitarte izango da eta sarrerak Tolosako Ekinbide Etxean eskuratu daitezke (943 650414).

Erakusketa

- **Tolosa.** Inestable GKO Galeriararen eskutik ikusgai, Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Ertza erakusketa GKO Galerian ikusgai.
- **Tolosa.** 2011ko egutegiko Argazki Lehiaketan parte hartu dutenen erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Lobo Electrico taldeak lan berria du kalean

TOLOSA ● Lobo Electrico musika taldeak lan berria kaleratu berri du. Pasa den ostegunean Donostiako Bukowski tabernan aurkeztu zuten *Artefactos Magicos* izena jarri dioten diskoa. Beraiek azaltzen duten moduan, «zakur zaharrak» dira musikaren munduan, Euskal Herrian hainbat kon-

tzertu emateaz gain, European eta Japonian ere izanak baitira. «Lobo Electricoren emanaldi batera joatea, disko baten arrastoetara eraman ezin den esperientzia da», gaineratzen dute. Iragarri dituzten kontzertuetako batera joan beharko esperientzia horren berri izateko. NEREA LIZARRALDE

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxe bulegoa

agurrak



bi sarrera pare

Los Golden en Blanco y Negro antzezlanerako

Urriak 8 • Ostirala • 20:30etan
Tolosako Leidor Antzokian



sarrerak

sarrera pare bat

LAGUN ARO GBC CAJASOL

saskibalo partidarako



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

harpidedun **TXOKA hitza**